

ERAKUNDE ADIERAZPENA

(Eskualde Garapenerako Europako Funtza kudeatzeko

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Eginkizun eta Prozedura eskuliburuaren edukiaren arabera)

Donostian, 2019ko otsailaren 19an

Gipuzkoako Foru Aldundiko Ogasun eta Finantza Departamentuko Zerga eta Finantza Politikako Zuzendaritzak (ZFPZ, aurrerantzean), bere konpromisoa adierazi nahi du lege, etika eta moralaren arauak betetzeko eredu edo estandar gorenekin, hala nola zintotasun, zuzentasun eta objektibitate printzipio zorrotzenekin, berarekin harremanetan dauden eragile guztiek iruzurraren aurkakotzat antzeman dezaten ZFPZren jarduera, hala nola edozein tankeratako ustelkeriaren aurkakotzat. Bere zuzendaritza taldeko langile guztiek bereganatzen eta onartzen dute konpromiso hori.

Bestalde, ZFPZ osatzen duten enplegatu publikoek daukate, beren betekizunen artean, honako hau: "interes orokorrak babestea, Konstituzioaren eta gainontzeko legediaren aginduak jarraiturik, eta honako oinarrien arabera lan egitea: objektibitatea, zintotasuna, neutraltasuna, erantzukizuna, inpartzialtasuna, konfidentzialtasuna, zerbitzu publikoarekiko arduraren gardentasuna, eredu-gardentasuna, soiltasuna, irisgarritasuna, eraginkortasuna, kultur eta natura ingurumenaren sustapena, eta emakume eta gizonen arteko berdintasunarekiko errespetua" (5/2015 Legegintza Errege-Dekretua, urriaren 30ekoa, Enplegatu Publikoaren Oinarrizko Estatutuaren Legearen testu bategina onartzen duena; 52. artikulua).

Testuinguru horrekin batera, Gipuzkoako Foru Aldundiak Zuzentasun Instituzionalerako Sistema bat badauka¹, etika publikoa eta eredu-gardentasuna sendotzea nortasun-ezaugarritzat duena, Gipuzkoa eredu-gardena bat eraikitzeko. Zuzentasun Instituzionalerako Sistema hori gorpuztuta dago bai helburu, printzipio, prozedura eta berme erakunde sorta batzuen bidez, eta bai gardentasun, kontu-emate eta ebaluaketa mekanismo batzuen bidez ere, eta horien helburua da zintotasun politika bat ezartzea eta Foru Administrazio eta foru esparruko sektore publiko osoaren azpiegitura etikoa eraikitzea.

Gipuzkoako Foru Aldundiaren Zuzentasun Sistemaren helburua da arduradun eta enplegatu publiko den pertsona orok zuzentasun kultura garatzea eta bultzatzea eginkizun publikoak burutzean, baita foru zerbitzu publikoen hornikuntzan parte hartzen duten erakunde edo pertsona orok ere, horrela era eraginkorrean gorpuztuko baita azpiegitura etiko bat. Horregatik, Zuzentasun Sistemak, zenbait portaera kodez aparte, zuzentasun instituzionalaren prebentzio eta

¹ <https://www.gipuzkoa.eus/eu/aldundia/zuzentasun-sistema>

zabalkuntza sistemak dauzka bere baitan, eta baita haren berme, jarraipen eta ebaluaketarako tresnak ere.

Xede hauetarako, gainera, ZFPZak arrisku ebaluaketa talde bat badauka, Eskualde Garapenerako Europako Funtsa kudeatzean, iruzurren aurkako politikak berrikusteko eta eguneratzeko, hala nola bere emaitzen jarraipena egiteko. Arduradunen eta prozesu kudeatzaileen kolaborazioa ere badauka, barne kontrol sistema egokia badagoela ziurtatzeko bakoitzaren erantzukizun esparruetan, eta bermatzeko, hala balegokio, beharrezko eraginkortasuna zuzentze neurrien ezarpenean.

Zentzu horretan ere, ZFPZak arau eraginkor eta neurtuak ezarri ditu iruzurraren aurka, lehenagoko epealdietan lortutako esperientzian oinarrituak, hala nola honetarako egindako iruzur arriskuaren ebaluaketan.

Honetaz gain, Programa Operatiboarentzat kaltegarritzat izan litezkeen iruzur susmoak, edo irregulartasunak salatzekeo tresnak eta prozedurak badauzka, GERTUBIDE zerbitzua batik bat, edota Estatu mailako SNECA (Servicio Nacional de Coordinación Antifraude), OLAF (Oficina Europea de Lucha contra el Fraude) bulegora bideratzeko. Txosten guztiak konfidentziaztasun osoz kudeatuko dira eta gai hau arautzen duten lege guztiei jarraituz.

Azken finean, ZFPZak zero-tolerantziako politika bat dauka iruzurra eta ustelkeriaren aurka, eta kontrol sistema sendo bat ezarri du, ahal den neurrian aurretik ekiditeko eta aurkitzeko iruzurrezko ekintzak eta haien eragina zuzentzeko, gertatuz gero. Politika honek eta berak eskatzen dituen prozedura eta estrategia guztiek SNECA-ren (Servicio Nacional de Coordinación Antifraude) laguntza daukate. SNECA irailaren 19ko 802/2014 Errege-Dekretuak sortu zuen (irailaren 26ko BOEn), politika hau era jarraituan berrikusteko eta eguneratzeko.



Bilfori Zabala Fernández

Zerga eta Finantza Politika Zuzendaria
Ogasun eta Finantza Saila
Gipuzkoako Foru Aldundia